



Espediente-zk: 003/18

BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIAREN karatula

Kontratu mota: **ZERBITZU-KONTRATUA**
Prozedura: **IREKIA**

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

- 1.1.- Definizioa:** Haurreskolak Partzuergoko zentroetan 2018/2019 eta 2019/2020 ikasturtetan "Haurreskolako Hezkuntza proiektua" ekintza formatiboa garatzeko aholkularitza eta asistentziaren kontratazioa.
- 1.2.- Kontratuaren bidez bete behar diren premia administratiboak:** Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileei zuzendutako formazio ekintzak garatzeko zerbitzuak.
- 1.3.- Sortutako zatiketa:** Ez
- 1.4.- Erregulazio harmonizatuko kontratua:** Ez
- 1.5.- CPA-2008 sailkapen estatistikoaren kodea** (451/2008 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko apirilaren 23koa): 85.5 (hezkuntzako bestelako zerbitzuak)
- 1.6.- CPV nomenklaturaren kodea** (Europako Batzordearen 213/2008 (EE) Erregelamendua, 2007ko azaroaren 28koa, kontratu publikoen hiztegi komuna (CPV) onartu zuen Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena): 80570000-0

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK.

Baldintza administratibo zehatzen agiriko 2. klausulan adierazi direnak.

3.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

Hauxe da kontratuaren balio zenbatetsia, publikotasunaren eta adjudikatzeko prozeduraren ondorioetarako: 140.812,00 € (BEZa kenduta).

4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (eskaintzek ezin dituzte gainditu adierazitako guztizko zenbatekoak).

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua: 140.812,00 euro + 0 euro (BEZagatik); guztira, 140.812,00 euro.

5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK.

5.1.- Prezioa zehazteko sistema:

Lizitaziorako prezioa unitarioak dira: preskripzio teknikoen pleguaren 2.puntuan zehaztutakoak.



Prezio horiek gehieneko prezioak dira, ondorioz horiek gainditzen dituzten eskaintzak ezeztatuak izango dira

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua:

- Ordainketa bakarra: Ez.
- Ordainketa partzialak: Bai.

Ordainketa partzialak aldi behin egingo dira, honela: 2019ko otsailetik aurrera hilero, baina faktura aurrez aurkeztu beharko da, eta kontratazio-organoak oniritzia eman beharko dio.

5.3.- Konturako ordainketak, prestalanak egiteagatik: Ez dago halakorik.

5.4.- Prezioak berrikustea: Ez dago halakorik.

6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN EXEKUZIO-EPEA ETA IRAUPENA.

6.1.- Kontratuaren iraupena: 2020ko ekainaren 30era arte

6.2.- Hasteko data: 2019ko urtarrilaren 1a

6.3.- Kontratua luzatzea: Ez

7.- ARGITALPEN-GASTUAK. Adjudikaziodunak ordaindu behar dituen argitalpen-gastuen gehieneko kopurua, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorraren (APKLEO) 67.2 artikulua araberak: Ez dira aurreikusten.

8.- BERMEAK.

8.1.- Behin-behineko bermea: Ez.

8.2.- Behin betiko bermea: Bai, esleipen-zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

8.3.- Berme osagarria: Ez.

8.4.- Zilegi da bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa bidez egiaztatzea bermea eratu izana: Ez.

8.5.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzeko: Ez.

8.6.- Prestazioaren zati bat bakarrik onartzen denean, bermeari zati proportzionala itzultzea edo ezerezteko eskatu ahal izango du kontratistak: Ez.

Bermeak honen alde eratzeko dira: HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN ALDE. IFZ: P0100385D.

9.- ASEGURUAK. Enpresa adjudikaziodunak beraren jardute-eremuan legez eskatutako nahitaezko aseguruak eduki beharko ditu, bai eta baldintza administratibo zehatzen agirian eskatzen direnak ere.

10.- LAN-KONTRATUAK SUBROGATZEKO BALDINTZEI BURUZKO INFORMAZIOA: Bai

Baldin eta kontratuaren xede den jardura egiten duten langileak, hitzarmen kolektibo aplikagarriaren arabera, subrogazio-eskubidea baliatzeko kasuren batean badaude, nahitaezkoa izango da kontratazio honetan langile horien lan-kontratuak subrogatzea.

Adjudikaziodunak nahitaez subrogatu beharko du, enplegu-emaile gisa, adjudikatu den kontratuaren xede den prestazioa une horretara arte egin duen enpresak Gizarte Segurantzari eta lanari lotuta zituen betebeharrak eta eskubideetan. Gainera, subrogatzeko betebeharrak



ezartzen duen arauan gutxienez zer antzintasun adierazi den, langileen gutxieneko antzintasun hori errespetatu beharko du.

Kontratatzailearen profilean honako dokumentu hau jaso da: «Lan-kontratuei buruzko datuak». Bertan jaso dira prestazioa ematen dabiltzan langileen lan-baldintzei buruzko datuak. Zerbitzua gaur egun ematen du(t)en enplegu-emaile(e)(a)k eman ditu(zte) datuok. Informazio hori eman da Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko (apirilaren 7ko 3/2016 Legea).

11.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO LEKUA: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herri eta haurreskola desberdinetan.

12.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO HIZKUNTZA-BALDINTZAK.

Kontratu honek Euskal Autonomia Erkidegoko Estatuak 6. artikuluan jasotako bi hizkuntza ofizialen araubidea bete behar du -bi hizkuntza ofizialen erabilera Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko oinarrizko 10/1982 Legean dago araututa, baita hura garatzen duten arauetan ere-.

Bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira kontratua exekutatzean, horixe baita kontratuaren xede den prestazioa exekutatzeako baldintzetako bat. Baldintza hori ez betetzeak kontratu honetako beste zeinahi klausula ez betetzearen ondorio berberak izango ditu. Hala ere, kontratua exekutatzeako baldintza bereziak direla-eta, hura ofiziala ez den beste hizkuntza batean edo batzuetan exekutatatu behar dela ezar daiteke baldintza teknikoan agirian.

Kontratua exekutatzean, bidenabar, baldintza-agiriko hizkuntzari buruzko klausulan ezarritako baldintza zehatzak beteko dira.

13.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

14.- KONTRATUEN ARABERAKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.

Baldintza-agirietan ezarri direnak.

15.- KONTRATUEN ARABERAKO ZIGORRAK.

- a) Berandutzeagatik: SPKLTBren 212.4 artikuluan ezarritakoak.
- b) Kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte.
- c) Balorazio-irizpideak ez betetzeagatik (150.6 artikulua): kontratu-aurrekontuaren % 10era arte.
- d) SPKLTBren 227.2 artikuluan ezarri diren azpikontratazio-baldintzaren bat edo baldintza-agiri honen karatulan azpikontrataziorako ezarri den gehieneko muga ez betetzeagatik: azpikontratuaren % 50era arte.
- e) Kontratua exekutatzeako baldintza bereziak gaizki betetzeagatik: kontratu-aurrekontuaren % 10era arte

16.- AZPIKONTRATAZIOA.

- Ez da muga berezirik ezarri, SPKLTBren 227.2 artikuluan ezarritakoa izan ezik.

- Azpikontratazioa denean, lizitatzailleek eskaintzan (B gutun-azalean) adierazi beharko dute kontratuan zer zati azpikontratatu duten. Horrez gain, ehunekoa eta azpikontratataren izena edo enpresa-profila zehaztu beharko dituzte, bai eta bi alderdiek sinatutako konpromiso-dokumentua ere.
- Edonola ere, azpikontratuek bete beharko dute eskaintzan ezarritakoa. Gainera, azpikontratua egin aurretik, idatziz jakinarazi behar zaio HAURRESKOLAK PARTZUERGOARI.

17.- KONTRATUA ALDATZEA.

Ezusteko aldaketak: Ezin da ezusteko aldaketarik sartu, interes publikoko arrazoiengatik izan ezik, edo SPKLTBren 107. artikuluan ezarritako inguruabarren bat gertatu ezean, eta, edonola ere, artikulua horretan ezarritako mugak bete beharko dira.

18.- PRESTAZIOEN BERMEALDIAK: Ez dago halakorik.

19.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK.

Honako hauek kontratua suntsiarazteko kausa espezifikokoak dira:

- Kontratuaren xede den prestazioa eta eskaintzako edukiak ez betetzea edo gaizki betetzea.
- Kontratuan ezarritako funtsezko betebeharrak ez betetzea.
- Lan-arloko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia eta klausulak ez betetzea.

20.- ZERBITZU-KONTRATUAN EZARRITAKO PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.

20.1 Lan-programa.

- Kontratatutako Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren (APKLEO) 198. artikuluan zehaztutako lan-programa aurkeztu behar du: Bai, egin beharreko lanen plangintzaren deskribapenarekin.
- Hauxe da lan-programa aurkezteko gehieneko epea: B gutun-azala aurkezteko jarritako epe barruan (formulak aplikatuz ebaluatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa).

21.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA: Bai, baldintza administratibo zehatzen agiriko 43. klausulan jasotako neurri bereziak ezarri dira, bai eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Legean ezarritakoak ere (legea abenduaren 13koa da).

II.- KONTRATU-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK, ENPRESEN ETA ESKAINTZEN PARTE-HARTZEA ETA HAUTAKETA.

22.- KONTRATAZIO-ORGANOAK ETA INFORMAZIOA ETA BALDINTZA-AGIRIAK ESKURATZEA.

22.1.- Entitate adjudikatzailea: HAURRESKOLAK PARTZUERGOA.

22.2.- Organoak zehaztea:

22.2.1.- Kontratazio-organoa: Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea.

22.2.2.- Kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen administrazio-organoa: Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.



22.3.- Espedientea izapidetzen duen bulegoa: HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO Formazioa eta Hezkuntza Laguntza Zerbitzua.

Helbidea: Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina

Herria eta posta-kodea: Eibar – 20600

22.4.- Harremanetarako:

- **Telefono-zk:** 943.82.19.02
- **Faxa:** 943.12.07.37
- **Helbide elektronikoa:** formazioa@haurrekolak.eus

22.5.- Kontratzailearen profila, baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria Interneten: www.haurrekolak.eus

22.6.- Dokumentuak eta informazioa lortzeko azken eguna: 2018ko azaroaren 5a

23.- AURREKONTU-IZENDAPENA: 0001.422.23888, 0048.422.23888 eta 0020.422.23888.

23.1.- Gastua kofinantzatuta dago: Ez.

23.2.- Aurretiko izapidetzea: Ez.

24.- IZAPIDEAK, ETA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA.

24.1.- Izapidetzea:

- Arrunta: Bai.

24.2.- Prozedura:

- Irekia: Bai.
- Prezioa da eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra: Ez.
- Eskaintzak baloratzeko hainbat irizpide daude: Bai.

25.- LIZITAZIO ETA KONTRATAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA: Ez

26.- ESKAINTZAK EDO PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

26.1.- Aurkezteko azken eguna eta ordua: 2018ko azaroaren 6a, eguerdiko 12:00ak baino lehen.

26.2.- Eskatutako dokumentazioa aurkezteko modua: A, B eta C gutun-azalak, baldintza administratibo zehatzen agirian eta karatula honetako puntu egokietan adierazten den edukiarekin.

- A gutun-azala: Erantzukizunpeko deklarazioa.
- B gutun-azala: Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak.
- C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa, eta formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak.

Gutun-azal guztiak behar bezala identifikatu behar dira, honako datu hauek jasota:

GUTUN-AZALA:

DOCUMENTAZIOA:



Kontratuaren xedea:	
Espediente-zenbakia:	
Sozietatearen izena:	I.K.F.:
Sozietatearen helbidea:	
Ahalordedunaren izena:	N.A.N.-a:
Harremanetarako telefonoa:	
Harremanetarako pertsona:	
Helbide elektronikoa:	

26.3.- Aurkeztu behar den dokumentazioa:

A GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

- **Erantzukizunpeko deklarazioa** (baldintza-agiri honetako 0 eranskinean jasotako ereduaren arabera). Horren bidez, lizitatzailleak haxe adierazten du: kontratatuak egiteko baldintzak betetzen dituela, eta, zehazki, baldintza-agiri honetan ezarritakoak; hori egiaztatzen duten dokumentuak dauzkala, eta kontratazio-organoak hala eskatzen duen bakoitzean, dokumentazioa aurkeztuko duela; eta, zehatz-mehatz, adjudikazioa egin aurretik aurkeztuko duela, adjudikazioduna izatea proposatzen badiote.

Deklarazioaren edukiak ereduaren araberakoa izan beharko du, eta lizitaziotik baztertu ahal izango dira eredia betetzen ez duten deklarazioak.

- **Eranskinak, hala dagokionean (ikus 14. klausula, ereduzko baldintza-agiriaren I. atalean)**
Proposamenak aurkezteko azken eguna izango da legez eta baldintza-agiri honetan kontratatzeko ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatzeko eguna.

B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzailleek **paperean eta euskarri informatikoan (USB, CD edo DVD)** aurkeztuko dute eskaintza. Bertan ezin da inola ere jaso eskaintza dokumentu garrantzitsurik, ezta formulak aplikatuz ebaluatu daitekeen alderdirik ere. Horrelakorik sartuz gero, **lizitaziotik baztertu ahalko da eskaintza.**

(Oharra: euskarri informatikoan (CD edo DVD) aurkeztu behar den B gutun-azaleko eskaintzan ezin da jaso eskaintza ekonomikoko dokumenturik, ezta formulak aplikatuz ebaluatu ezin den gainerako irizpiderik ere)

Lizitatzailleek eskaintzan honako dokumentu hauek bildu beharko dira, baldintza-agiriko 14. atalean adierazitako hurrenkeran, eta behar diren epigrafeak jasota. Horrez gain, behar den moduan aurkeztu beharko da

C GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Honako dokumentu hauek Bildu behar dira:



1.- Eskaintza ekonomikoa, baldintza-agiri honetako I. eranskinean ezarritako ereduaren arabera.
(Baldintza-agiri honetako eranskinetan ezarritako ereduak bete ezean, eskaintzak lizitaziotik baztertu ahalko dira.)

26.4.- Aurkezteko lekua:

- **Entitatea:** HAURRESKOLAK PARTZUERGOA.
- **Helbidea:** Otaola etorbidea 29, Jaizkibel eraikina, 1
- **Herria eta posta-kodea:** Eibar – 20600

26.5.- Eskaintza postaz igorritz gero, hala egin dela abisatzeko bitartekoak:

- Telefonoa: 943.82.19.02
- Faxe: 943.12.07.37

Epemuga (eguna eta ordua): 2018ko azaroaren 6a, 12:00ak arte.

- Helbide elektronikoa: formazioa@haurreskolak.eus. (Eskaintzak postaz bidaltzen badira adierazitako epearen barruan, egun horretan bertan posta-bulegoan zein egunetan jarri den egiaztatu eta jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari posta elektrikoaren bidez, baita ere ezinbestekoa izan da telefonoz jakinaraztea hurrengo zenbakira deituta, 943 82 19 02. Mezuari erantsiko zaio posta-bulegoan entregatu dela egiaztatzen duen kopia eskaneatua. Bertan, datu hauek jaso behar dira: zer bidali den, noiz (eguna eta ordua), igortzailea, hartzailea eta posta-kodea). Betekizun bi horiek betetzen ez badira edo eskaintzak jasotzeko finkatutako epea amaitutakoan jasotzen badira ez dira onartuko.

26.6.- Lizitatuak zenbat denboratan eutsi behar dion eskaintzari: bi (2) hilabete, eskaintza ekonomikoa irekitzen denetik zenbatzen hasita; horri beste hamabost egun balioudun gehitu beharko zaizkio, SPKLTBren 152.3 artikuluan aipatutako izapideak (balio anormal edo neurrigabeak) bete behar direnean.

26.7.- Alderak onartzea: Ez

26.8.- Eskaintzak jendaurrean irekitzea: Bai.

C gutun-azala irekitzeko lekua: Kontratatuak diren profileen argitaratuko da.

27.- CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS OFERTAS.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, haien garrantziaren arabera, handienetik txikienera, eta eman zaien haztapenaren arabera. Guztizko puntuazioa: 100 puntu (a) eta b) letretako multzoen dagozkien haztapenen baturak eta guztizko puntuazioak berdinak izan beharko dute beti):

a) Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: 50 puntu

BALORAZIO IRIZPIDEAK (BALORATZEKO ASPEKTUAK)	GEHIENEZKO PUNTUAK
1.- Prestakuntza proiektu teknikoa:	35 puntu. Zehaztutako atal

<ol style="list-style-type: none"> 1) Formazio planaren deskribapena. Formazio planaren deskribapen orokorra, heziketa-markoaren barruan soilik (helburuak, edukiak, hezitzailearen rola marko instituzionalaren barruan,...) 2) Proiektuaren garapen egokirako erabilitako metodologia. 3) Ekintzaren garapen egokirako materialak eta baliabideak (bibliografia, artikulua, web orriak...). 4) Haurreskolak Partzuergoko 14 hezkuntza printzipioekin duen lotura. 5) Antolaketa: aurrez aurreko ekintzak, jardunaldi-hitzaldi kopurua, bilerak haurreskolan, on-line bidezko orduen proposamena. 6) Ekintzak burutzeko egutegia.. 7) Helburu, edukien, metodologiaren, trataera eta prozesu osoaren garapena genero ikuspegitik. 	<p>bakoitza 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da eta gehienez 35eko puntuazio maximoa lortu ahal izango du. Beraz, atal bakoitzean puntuazioa lortu ahal izateko beharrezkoa izango da aurkeztutako proposamen guztiek atal bakoitza errespetatzea.</p>
<p>2.- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko formazioan esperientzia</p>	<p>5 puntu</p>
<p>3.- Irakaslegoari zuzendutako ekintza formatiboetan esperientzia, haur hezkuntzan, 0-3 zikloan.</p>	<p>5 puntu</p>
<p>4.- Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileei zuzendutako ekintza formatiboetan esperientzia</p>	<p>5 puntu</p>

b) Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak: 50 puntu

EBALUAZIO IRIZPIDEAK	GEHIENEZKO PUNTUAK
1.- Eskaintza ekonomikoa	50 puntu

Formula: Eskaintza ekonomikoari esleituko zaio balorazio handiena. Gainerako eskaintzak ekonomikoaren proportzioan baloratuko dira (bi dezimalekin) hurrengo formularen bidez.

$$LP = (EO/BE) \times 50 \text{ Puntu}$$

- LP= Lizitzailearen puntuazioa.
- EO= Eskaintzarik onena.
- BE= Baloratu behar den eskaintza.

28.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK BATUTA, GUTXIENEZ LORTU BEHAR DEN PUNTUAZIO-TARTEA: Ez dagokio.



29.- BALIO ANORMAL EDO NEURRIGABEAK:

Bai. Onartu diren eskaintzen zenbatekoen batezbesteko aritmetikoarekin erkatuta, eskaintza baten zenbatekoa ehuneko 10 unitatetik beherakoa baldin bada, eskaintza horren balioak anormalak edo neurrigabeak direla joko da.

Balio anormal edo neurrigabeak dituzten eskaintzak direnean, SPKLTBren 152.3 artikuluan ezarritako prozedura beteko da.

Balio anormal edo neurrigabeak dituzten eskaintzak ez dira sartuko prezioen balorazioan, kontratazio-organoak onartu ezean, eta aurrez irizpide horiek justifikatu ezean.

30.- DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK: Dokumentu administratiboak kontratua adjudikatu aurretik aurkeztu beharko dira.

31.- ENKANTE ELEKTRONIKOA. Adjudikazioa egiteko, enkante elektronikoa egingo da, honako elementu hauen arabera: Ez da egingo enkante elektronikorik.